

EBAZPENA, 2015EKO ABENDUAREN 14KOA, ETXEPARE EUSKAL ZUZENDARIARENA, "ITZULTZAILE BERRIAK PROGRAMA"-ren baitan BARNETEGIETAKO EGONALDIEN KONTRATAZIOA (K/2015/001) ESLEITZEN DUENA.

GERTAKARIAK

LEHENENGOA.- Donostia 2016 eta Etxepare Euskal Institutuak, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2014ko abenduaren 18an, honako helburuarekin: nazioarteko literatura itzultzaileak euskaraz trebatzea eta nazioarteko literatura itzultzaileen eta bertakoen arteko zubiak eraikitzea, "Itzultzaile Berriak Programa" izeneko proiektua abian jartzearen bidez.

BIGARRENA.- Itzultzaile Berriak Programaren baitan, idazpuruan adierazitako kontratazioari buruzko izpapideak hasi ziren, esleipen prozedura bezala publikizaterik gabeko negoziatua erabiliz, 2011ko maiatzak 10eko datarekin Etxepare Euskal Institutuaren organo eskudunak onartutako barne jarraibideen 8.2 atalarekin bat etorritik.

HIRUGARRENA.- Aipatu barne jarraibideen baitan, Zornotzako barnetegiari, Maizpideko barnetegiari eta AEK-ko barnetegiari bidali zitzaizkien gonbidapena prozeduran parte hartzeko, kontratazioarako baldintza tekniko eta ekonomikoekin batera. Horiei erantzunez, Zornotzako barnetegiak eta Maizpideko barnetegiak aurkeztu zituzten eskaintzak.

LAUGARRENA.- 2015eko azaroak 12ko datarekin Euskara sustatu eta hedatzeko alorretik txosten teknikoa egin da, bertan, aurkeztutako eskaintzen xehetasunak jaso dira eta baldintza tekniko eta ekonomikoen arabera aztertu dira.

BOSTGARRENA.- Gauzak horrela, Euskara sustatu eta hedatzeko Zuzendaritzatik, egonaldiaren kontratazioa Zornotzako barnetegiari esleitzea proposatzen da, aipatu txostenean jasotako arrazoiak medio, oro har hartuta egokia delako Administrazioaren interesari begira, egonaldiaren baldintza onuragarriak eskaintzen dituelako.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Euskara sustatu eta hedatzeko alorreko zerbitzu teknikitik barnetegiek aurkezturiko dokumentazio teknikoa eta eskaintza aztertu eta baloratu dira, kontratua arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENGOA.- Euskara sustatu eta hedatzeko alorreko zuzendaritzak egindako txostenean kontratua ZORNOTZAKO barnetegiari esleitzea proposatzen da, oro har hartuta egokia delako Administrazioaren interesei begira, egonaldirako baldintza onuragarriagoak eskaintzen dituelako.

HIRUGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu beteginaren 191 artikulua, Etxepare Euskal Institutua sortzeko eta arautzeko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 9.2.f) artikulua eta barne jarraibideeko seigarrenak, kontratazio alorrean emandako eskumenak egikaritzen dira.

Baldintza-agiriak, espedienteko dokumentazioa, aipatutako lege-arauak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen orokorrak ikusi dira eta Euskara sustatu eta hedatzeko Zuzendaritzaren proposamen-txostena aintzat hartuta da.

Ondorioz, hau


EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- ZORNOTZAKO BARNETEGIARI esleitzea Itzultzaile Berriak Programaren baitan, barnetegiaren egonaldien kontratua (K/2015/001), enpresak egindako proposamen teknikoaren eta ekonomikoaren arabera: 24.160€ (BEZ barne).

Lana gauzatzeko epea baldintza teknikoetan ezarritakoaren arabera izango da.

BIGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea kontratatzailearen profilean, www.etxepare.net, eta esleipen prozesuan parte hartu duten enpresei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa jar diezaioke interesdunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez



dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion aretoan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2015eko abenduaren 14a.

MARIA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA
Etxepare Eukal Institutko zuzendaria